

EZKER ABERTZALEA. Aldaketa politikoa gauzatzeko borondatea agertu dute adierazpenaren sinatzaileek

«Eskaintza politiko berri bat» abiatzeko konpromisoa hartu dute ehun lagunek

Otsailaren 15ean Iruñean agerraldia egingo dute ekimenarekin bat egingo duten «abertzale eta ezkertzaileek»



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Adierazpena sinatu duten pertsonen ordezkartza zabal bat izan zen, atzo, Donostiako Miramar jauregian, ekimenaren berri emateko.

Garbiñe Olaizola | DONOSTIA

Ehun herritar bildu dira *Asko garelako, bildu gaitzen!* izeneko adierazpenaren baitan, «eskaintza politiko berri bat» mar txan jartzeko konpromisoarekin, autodeterminazio eskubidea abiapuntutzat hartuz. Ekimenaren berri eman zuten atzo adierazpena izenpetu duten hirurogei bat sinatzailek Donostian.

«Euskal Herriak egun duen egoera zail baina, era berean, itxaropentsuaren aitzinean» ekarpen bat egin nahi dutela jakinarazi zuen Arantxa Hirigoi sinatzaileetako batek. Horrenbestez, adierazpenaren izenpetzaileak datozen egunotan «abertzale eta ezkertzaileekin» bilduko direla eta ekimenarekin bat egiten duten guztiekin otsailaren 15ean Iruñean agerraldia egingo dutela iragarri zuten. «Gure xedea eskaintza politiko berri bat ezagutaraztea da», nabarmendu zuen.

Sinatzaileen artean daude Batasuneko mahaikide Arnaldo Otegi, Fernando Barrena, Anjel Mari Elkano, Xabi Larralde eta Antton Morcillo; eta HBko Mahai Nazionala eta kide ohi Tasio Erkizia, Kepa Gordejuela, Matti Iturralde, Txomin Ziluaga

EHUN SINATZAILAK				
■ Goio Acero	■ Txema Egiguren	■ Laura Kaltzada	■ Josu Goia	■ Marine Pueyo
■ Jean Claude Agerre	■ Anjel Mari Elkano	■ Xabi Larralde	■ Matti Iturralde	■ Patrick Queheille
■ Inazio Agirre	■ Tasio Erkizia	■ Jesus Mari Leitzza	■ Emili Laplacette	■ Kepa San Martin
■ J.M. Agirretxe	■ Aitor Esnaola	■ Itziar Lopategi	■ Amparo Lasheras	■ Txane Senar
■ Karnele Aierbe	■ Kandiko Esoain	■ J.M. Lorenzo Espinosa	■ Mikel Mendizabal	■ Maialen Tapia
■ Pedro Albite	■ Hector Espin	■ Iñaki Morena	■ Antton Morcillo	■ Uribe Bautista
■ Alberto Ansoleaga	■ Alfonso Etxeberria	■ Evaristo	■ Jose Luis Otamendi	■ Arantxa Urkaregi
■ Xanti Antero	■ Jon Fano	■ Gavilan	■ Aner Petralanda	■ Jon Urrujolegi
■ Iñaki Antiguedad	■ Antxon Gomez	■ Inaxio Agirre	■ Mieltxo Saralegi	■ Begoña Zabala
■ Iñaki Arvide	■ Itxaso Gomez	■ Jon Albusu	■ Iñaki Saratxaga	■ Txomin Ziluaga
■ Maite Aristegi	■ Mertxe Gomez	■ Xabier Amuriza	■ Xabier Silveira	■ Miren Zinkunegi
■ Ainara Armendariz	■ Kepa Gordejuela	■ Estitxu Arozena	■ Mireia Unamuno	■ Arait Zubimendi
■ Jexus Mari Arrizabalaga	■ Pablo Gorostiaga	■ Anjel Arrospide	■ Miren Zabaleta	■ Jagoba Zulueta
■ Amets Arzalluz	■ Arantxa Hirigoi	■ Leo Belaustegi	■ Kike Zurutuza	■ Gabi Basañez
■ Josu Barandika	■ Marije Insausti	■ Mikel Egibar	■ Niko Moreno	■ Juan Mari Elortza
■ Fernando Barrena	■ Imanol Iparragirre	■ Txema Egiguren	■ E. Muruamendiaraz	■ Itziar Galarzi
■ Kepa Bereziartua	■ Xanti Iparragirre	■ Jokin Elarre	■ Sebe Ormaza	■ Laura Mintegi
■ Erika Bilbao	■ Mikel Irastortza	■ Jose Luis Elkoro	■ Arnaldo Otegi	■ Arantza Urbe
■ Jose Martin Bustinza	■ Ibon Irazola	■ Kepa Enbeita	■ Fredi Paia	■ Jon Urrusolo
■ Rafa Diez	■ Lizar Irazusta	■ Joxerra Etxebarria	■ Jose Mari Perez	■ Ramon Agirre
■ Rikardo Ederra	■ Julen Kaltzada			

eta Jose Luis Elkoro. Horrez gain, hainbat arlotako pertsona ezagunek sinatu dute adierazpena, hala nola, Maite Aristegi EHNE sindikatuko idazkari nagusi ordeak, Rafa Diez LAB sindikatuko idazkari nagusiak, Xabier Amuriza eta Amets Arzalluz bertsolariek, Mieltxo Saralegi harrijasotzaileak, Anjel Arrospide aizkolariak, Joxe Mari Agirretxe pailazoak, Xanti

Antero *Txan magoak*, Ramon Agirre aktoreak eta Evaristo La Polla taldeko abeslariak.

«Aro berri bat eraiki» nahi dutela diote sinatzaileek

Sinatzaileen izenean Begoña Zabala, Goio Acerok eta Arantxa Hirigoi agiria irakurri zuten euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez, hurrenez hurren. «Euskal herritarra gara. Herri

zahar bateko seme-alabak gara. Eta euskal herritar guztiekin batera, gure herriarentzako aro berri bat eraikitzen lagundu nahi dugu», adierazi zuen Hirigoi. Gaineratu zuenez, «etorkizunari begira gaude, herri honek merezi duen etorkizuna eraikitze bidean asmo berriak sortzeko prest baikara».

Euskal Herriak, «herri gisa eta gainerako herriein, justizia

soziala bermatuko duen mundu berri hori eraikitze eskubide osoa» duela deritzote sinatzaileek. Euren hitzetan, euskal herritarra «ez daude kondenatuta Frantzia edo Espainian kateaturik bizitzera».

Euskal Herriari «autodeterminazio eskubidea» dagokiola esan zuen Hirigoi. «Eta horrela jakinarazi nahi diegu gure mezuetan *zazpiak bat* lau haizetara zabaldu arren, egun euskaldunok banatzen gaituzten markoak betiko iraun dezaten lan egiten dutenei. Eskaintza politiko zaharra egiten dutenei, alegia». Europako eraikuntzan «ahotsa edukitzeko eta, herri gisa, arlo guztietan bere garapenaren jabe izateko» Euskal Herriak autodeterminazioa behar duela esan zuen.

Halaber, Euskal Herriak «aldaketa politikoaren aldeko eta bakearen eta askatasunaren aldeko aldarria» egiten duela azpimarratu zuen. Erantsi zuenez, «giza eta herri eskubide ororen murrizketa bortitza pairatu arren, aukera ezin hobea du egun, askatasunean eta bakean oinarrituriko etorkizuna irabazteko». Autodeterminazio eskubideak «gatazka politikoari aterabidea ematea eta bake iraunkorra lortzea» ahalbidetuko duela adierazi zuen.